



SANTIXABELAK  
2023  
*gehigarri berezia*

aldizkariak  
ESKU-ORRIAK  
liburuak  
katalogoak  
AGENDA  
**kartelak**  
EGUTEGIAK  
papeleria  
koadernoak  
LOGOTIPOAK



**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU  
GRAFIKOA**

**DISEINU  
EDITORIALA**

**GORA  
SAN  
TIXA  
BEL  
AK**

**antza**

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**Bidaiatu  
Konpainia  
onean.**



Tel.: +34 943 36 32 90  
www.autocares-aizpurua.es

AUTOBUSAK  
**Aizpurua**



# HITZORDU HAUETAN TOKIA HARTZEA KOMENI

## Gazte bazkaria

Haurren Egunarekin batera, gazteen ere ekainaren 30ean ospatuko dute. Besteak beste, bazkaria antolatu dute 14:30ean, Mikel Laboa plazan kokatuko duten txosnagunean. Otordurako txartelak 12 eurotan salgai jarri dituzte Txirristran eta Txiribogan. “Animatu eta etorri!”, egin dute gonbita Xauxar Txosna Batzordetik.

## Zikiro jana

Uztailaren 1ean egingo da, 14:00etan hasita Askatasuna plazan. Txartelak, ekainaren 16an jarri zituzten salgai Aitzaga elkartearen, iazko prezio berean. Honez gero, agortu ez badira, Txiribogan eta Bordatxon eskuratu ahalko dira.

## Jubilatuaren bazkaria

Adinekoak uztailaren 3an, astelehena-ekin bilduko dira aurtien, Atxega Jauregian. 14:00etan hasiko den otordurako txartelak salgai izan zituzten ekainaren 16ra arte herriko hiru jubilatuen elkarteetan baita Gizarte Zerbitzuetan ere.

Txartelik gabe egon eta huraxe eskuratu nahi duenak, badaezpada Gizarte Zerbitzuetara deitu dezala, 943 377 110 telefono zenbakira.

## Prezio bereziak feriatuaren

Anbulatorio ondoko plazan kokatuko dute ohi bezala feriatuaren. Urtero moduan, prezio bereziak izango dituzte bai ekainaren 30eko Haurren Egunean, baita, festak amaitu osteko uztailaren 4an ere.



Gazte bazkarirako txartelak 12 eurotan eskuratu daitezke Txirristran eta Txiribogan.

# SANTIXABELEK

ekainak 29 - uztailak 3

## SANTIXABELEKO MENUA

Urdaiazpiko iberikoa  
Artzabal entsalada  
Otarraixkak plantxan

**AUKERAN:**  
Haragiak edo Arrainak

Gazta Tarta  
Edaria aparte

# 29,90€

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
PUNTAPAZ 3, USURBEL 943 36 91 39 ARTZABALJATETXEA.EUS

ileapaindegi

**mistoa**

GOLDWELL  
ELUMEN

*Azkeneko produktu eta teknikak!*

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**Inaki Iturgintza**

*Ondo pasa festetan!!!*

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**600 024 825**

info@inakiturgintza.com -- www.inakiturgintza.com

**mur**  
errotuluak

*Ondo pasa Santixabeletan!!*

**Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak**  
**Argidunak - Inpresio digitala**

**943 36 60 21 - USURBIL**  
**puntapax kalea 6 A-B**

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

**ZENDOIAENEA**  
taberna

*Ondo pasa Santixabeletan!*

**NAGUSIA 35, USURBIL**

## ADI, MASKOTARI

**E**kainaren 29tik uztaillaren 3ra ospatuko ditugu herriko festak, baina adi; lehenago, agertuko zaigu festetako zaindari lanak egingo dituen maskota. Iaz, zelatan izan genuen Potoxoen izkinetik. Nolako itxura izango ote du aurtengoan? Zer adierazi nahiko digu? Non kokatuko ote dute?

Jakinmina asetzeko ez dugu Santixabelak hasi arte itxaron behar. Datoren astelehenean, hilaren 26an, ospakizun egunetarako itxuraldatze betean izango dugun unean agertuko zaigu. Agurtu, aldiz, festen amaieran, uztaillaren 3an, garai batean baino azken traka ez hain zaratatsu eta ikusgarriagoarekin.



Argazkian, iazko maskota. Aurtengoa ekainaren 26an ipiniko dute.

**antenas Telemar**

ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK OBRARIK GABE!

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan  
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

TXAPELDUN  
JATETXEA

SANTIXABEL JAİETAN  
MENU BEREZIA!

*ereserba ezazu!*

TXAPELA BURUAN  
TA JATEKO MODUAN

MUNA LURRA KALEA 2, 20170 USURBIL, GIPUZKOA  
943 21 34 03 - @txapelkun\_jatebea

# noqua

jarraitu gure sare sozialak



[www.noqua.eus](http://www.noqua.eus)

# Rafa

## iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremlak
- Komuneko altzariak

**670 98 68 48**

Borda berri kalea 1, behea USURBIL

# INTZA

ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA



*Ondo pasa Santixabeletan!*

**UDARAKO AZALA PRESTATU  
GURE TRATAMENDUEKIN:**

**SENTIKORRA  
DETOX  
ANTIAGING  
ARGIZTATU  
MADEROTERAPIA**

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

# “DISEINUAREN BIDEZ, FESTAK TRANSMITITZEN DIDANA IRUDIKATZEN SAIATU NAIZ”

**E**gitarau txapelketak badu 2023ko Santixabeletako irabazlea: Peru Agirresarobe herritarra. Batxiler-go artistikoko ikaslea da bera, eta ikasurtean ikasitakoa praktikan jartzeko aprobetxatu du aukera hau, eta nola gainera, irabazle izatea lortuta. NOAUA!rekin izan da gaztea aurtengo diseinuaren nondik-norakoak aditzera emateko.

**NOAUA! Aurtengo egitarau diseinu txapelketa irabazi duzu. Zer aurkituko dugu egitaraua hartzean?**


**Peru Agirresarobe:** Jai giroa bilatu nahi nuen diseinuarekin, niri festak transmititzen didana irudikatuz. Azken urteetakoak begiratu nituen ideiak hartzeko eta horiei buelta bat emanda neure diseinu propioa sortu nahi nuen. Batez ere, kolorean jarri nuen arreta. Zerbait biziaren bila ari nintzen ni, marrak erabili eta koloreen potentziarekin lan espresibo bat egin nahi nuen. Kolore gorria izugarri identifikatzen dut Usurbilekin, ez dakit zergatik. Bide horietatik ekin nion diseinuari.

**Azken urteetako diseinuekin alderatuta, zein berrikuntza eskaintzen ditu aurtengoak?**

Begiratu nituen egitarau gehienetan marrakzi simple eta ulergarriak erabili zituzten, baita egitarauari zuzenean lotutako irudiak ere. Nireak jaiak barnebiltzen ditu, orokorrean, eta egitaraua barruan dauka. Nahikoa abstraktua ere izan daiteke.

**Oso irudi abstraktuak dauzka. Zer irudikatzen dute?**

Potxoeneako arduradunak ere galdera bera egin zidan. Tren txu-txua ikusten omen zuen berak. Portadako irudia



**“Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera paregabea izan da”**

**“Kolore gorria izugarri identifikatzen dut Usurbilekin, ez dakit zergatik. Bide horietatik ekin nion jaietako egitarau diseinuari”.**

Usurbilgo plaza da. Dema plaza irudikatzen du batik bat; lurtean karratuak daude, dorre gorri bat dauka eta ondoan Paris etxea; eta beste aldean, plazaz bestaldeko etxeak. Barruko atala abstraktuagoa da. Pertsonak daude: umeak, musikariak... Koloreak erabiltzean ere hausnarketa egin nuen. Aurreko urteetako lanak ikusita, nik kolorearen alde egin behar nuela erabaki nuen, orain artekoek baliabide hori gehiegi erabili gabe zeukaten eta. Kolore leherkorrak jaien adierazgarri onena izan zitezkeela iruditu zitzaidan eta armonia bat sortu nuen. Probak egin nituen koloreak elkarren alboan jarrita, eta aurkako koloreen aldeko apustua egin nuen azkenean: morea eta horia, gorria eta berdea... Kolorearen teoria aplikatu nuen.

**Lehen aldia duzu parte hartzen. Nolatan**

**eman zenuen izena txapelketan?**

Ez daukat gogoan nola otu ote zitzaidan izena emateko ideia. Norbaitek esan edo proposatu zidala uste dut. Lehenago ez nekien txapelketa hau egiten zenik ere. Aurten egiten aritu naizen ikasketekin bat zetorren txapelketak eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan.

**Zeintzuk dira ikasketa horiek?**

Aurten diseinuko arloa neukan, batxilergo artistikoa egiten ari bainaiz. Ikasurte osoan zehar lan asko egin dugu ikasgai sakontzen eta eskola lan gisa hartu nuen txapelketa ere. Behin irabazi nuela jakin nuenean, irakasleari erakutsi nion eta asko gustatu zitzaion. Lan pertsonaltzat hartu nuen, ikasurtean ikasitako hori benetan barneratuta neukan ikusteko.



## “NEURE KABUZ IKASI DUT DISEINATZEN, YOUTUBEN TUTORIALAK IKUSIZ”

**NOAUA! Denbora askoz behar izan duzu lana borobiltzeko?**

**Peru Agirresarobe:** Ez ditut zenbatu, baina ordu asko izan dira. Lagunak ikasten ari ziren bitartean, nik ez neukan ezer egiteko eta denbora hori aprobetxatu dut proiektu hau egiteko.

**Batzilergoa amaituta, diseinu grafikoa edo antzeko ikasketak egitea pentsatu duzu?**

Asko kostatu zait aukera egitea. Batzilergoiko lehen urtea zientifikoa egin nuen eta ondoren, artistikora salto egitea erabaki nuen. Bi bideak gustatzen zaizkit, baina lan-munduan artistikoari lotuta erosoago egongo naizela uste dut. Datorren ikasturtean diseinu grafikoa edo horri oso lotuta dauden ikasketa batzuk egitea erabaki dut. Esperientzia hau asko gustatu zait eta horrelako lan batean irudikatzen dut neure burua. Moda diseinua egitea ere pentsatu nuen lehenago, baina zehatzta da arlo hori, diseinua modara bakarrik bideratzen delako. Beraz, diseinu grafikoaren alde egin dut alor gehiago biltzeko.

**Batzilergoan diseinu grafikoari lotutako zerbait egiteko aukera izan duzu?**

Ez, neure kabuz ikasi dut. Egitaraua



*“Ordu asko eman ditut diseinu lan hau borobiltzen”*

**“Aurreko urteetako lanak ikusita, nik kolorearen alde egin behar nuela erabaki nuen”, adierazi digu Peru Agirresarobek. Argazkia, artxibokoa.**

egin bitartean neure kasa ikasi dut. Krita deskargatu nuen eta hor saltsan ibilita ikasi dut egin dudana egiteko beste. Tutorialak Youtuben ikusi nituen, eta lehenengo marrazkia paperean eginda, lehen aipatutako arkatzarekin digitalean egin nuen.

**Paperetik digitalerako jauzia ez al zaizu zaila iruditu?**

Jauzi hori zaila izan da teknikoki, erramintak ez nituelako ezagutzen. Prozesuaren zatirik handiena eskuz egin dut, errazagoa delako niretzat horrela lan egitea.

## “LANA AMAITUTA, IZUGARRIZKO BAKEA SENTITU DUT”

**NOAUA! Datorren urtean ere parte hartuko duzu?**

**Peru Agirresarobe:** Ez dakit. Lan handia hartu dut hau egiteko eta behin amaituta izugarrizko bakea sentitu dut. Ez dakit hori berriz bizitzeko gogoia izango dudan. Gogoia badut, agian, parte hartuko dut berriz ere.

Idea zerotik hasi eta prozesu osoa egiteak lan handia eskatzen du eta aurten oso serio hartu dut neure burua proban jartzeko, baina datorren urtean horretarako gogorik izango dudan batek daki. Jendea anima dadila horrelako lehiaketetan parte hartzera. Aurten sei parte har-

tzaile baino ez gara izan txapelketa honetan. Ez dago beti irabazi beharrik, baina ideiak hartu eta alderdi teknikoa pixka bat lantzeko aukera oso polita da.

Arduradunek azken momentura arte aldaketak egiteko aukera ematen dute, gainera.

# BERTSO-SAIOA UDALETXEKO PLAZAN EGINGO DA AURTEN

Urteak joan urteak etorri, badira behin eta berriro errepikatzen diren ekitaldiak. Bertso-saioa, adibidez. Inoiz huts egiten ez duen horietakoa da. Santixabel egunean arituko dira arratsalde partean, baina frontoian beharrez, Joxe Martin Sagardia plazan abestuko dute.

Urtetan frontoian aritu badira ere, honakoan udaletxeko plazan abestuko dute. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da bertso-saioa eta hauek izango dira oholtza gainera igoko diren bertsolariak: Sustrai Colina, Igor Elortza, Alaia Martin eta Eli Pagola. Maite Berriozabal arituko da gai-jartzaile lanetan.



Alaia Martin eta Eli Pagola uztaileen 2ko bertso-saioan arituko dira, Sustrai Colina eta Igor Elortzarekin batera. Maite Berriozabalek egingo ditu gai-jartzaile lanak. Argazkia: Bertsolari aldizkaria.

Ondo pasa Santixabeletan!

Atallu  
AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

EuroTaller

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

G15 GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA

Ondo pasa jaietan!

G15 USURBIL  
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKURAK  
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



*Santxabel zoriontsuak opa  
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL  
Tel. 943 36 11 82



ARRANDEGIA  
**PELLO**



ASTEARTETIK-LARUNBATERA 8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

# Uraitz, s.l.

*Ondo pasa  
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza  
Orokorra**

Telefona

**693 05 93 92  
943 56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)  
Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

## “IAZKO DESAFIOAN GALDU ZUEN TALDEAK ERREBANTXA ESKATU DIO TALDE IRABAZLEARI”

**H**erriarren arteko herri kirol desafioa edo erronka izan zen iazko Santixabeletako berrikuntza nagusietako bat. Arrakasta bikaina eta harrera ezinhobea izan zuen ekimenak eta aurten ere errepikatzen dira. Parte hartzaileak ere berak izango dira eta neska gehiagoarekin. Taldearekin izan da NOAUA! aurtengo berrikuntzez mintzatzeko.

**NOAUA! Joan zen urtean estreinakoz herriarren arteko herri kirol txapelketa egin zenuten eta aurten ere errepikatzen koton.**

**Herri kirol taldea:** Bai, joan zen urtean galdu zuen taldeak errebantxa eskatuko dio talde irabazleari. Erronka berri bat izango da aurten goa.

**Joan zen urteko planteamendua berriz egitekotan zarete. Balorazio positiboa egingo zenuten joan zen urtean?**

Oso balorazio ona egin genuen. Herriko gazteez osatutako bi talde egin genituen. Parte hartzaileetako askok diziplina ia ezagutu ere egin gabe. Trontzan aritu ziren lau lagunetako inork ez zuen lehenago probatu, korrikan batzuk jada ibiltzen ziren eta harria jasotzen ere bai. Zekitenen jakintza aprobetxatu eta besteek pixka bat ikasita jende askoren arreta piztea lortu genuen eta plaza bete genuen.

**Joan zen urteko errelebo formatuari eutsiko diozue?**

Bai, proba berak izango dira. Korrikan dakarkigu berrikuntza, neska gehiago sartze aldera, korrika arituko dira neskek. Beraz, harri jasotzea, giza-proba, aizkora, trontza eta korrika izango dira diziplinak. Erreleboen ordena zehaztu gabe daukagu, baina pertsona bakoitzak badaki zein diziplinatan arituko



**“Neska gehiago izango ditugu aurtengo edizioan”**

Ekainaren 30ean arratsaldeko 19:00etan hasiko da herri kirol desafioa. “Joan zen urteko plantillari eutsi diogu”, azaldu digute. “Eta aurtengoan bi neska gehiago sartu ditugu”.

den. Joan zen urtean, harria jasotzen hasi ginen, giza-proba ondoren, gero aizkora, trontza, eta amaitzeko korrika. Korrika utzi genuen azkenerako oso dinamiko delako eta azken segundura arte askotan irabazlerik ez delako izaten. Jendeari ere animatzeko asko gusatzen zaio formatu hori.

**Bestelako berrikuntzarik izango al da aurten?**

Neska gehiago izango ditugu aurten, esan bezala. Joan zen urtean parte hartutakoei deitu genien lehendabizi ea aurten ere parte hartzeko prest zeuden jakiteko eta denek baiezkota eman ziguten. Beraz, joan zen urteko plantillari eutsi diogu eta bi neska gehiago sartu ditugu. Errebantxa kutsu hori horregatik izango du hein handi batean, ia partehartzaile berak izango direlako. Oraindik erabat zehaztu gabe daukagu talde banaketa mantendu egingo dugun

edo aldatu. Ez dakigu urdin zirenek urdin izaten jarraituko duten eta gorriek gorri edo aldaketaren bat izango den taldeetan. Urdaintzi izan genuen babesle joan zen urtean eta aurten ere prest daude zerbait falta badugu, eskua botatzeko.

**Proba bakoitzean genero oreka mantenduko duzue?**

Ez erabat. Bi harri-jasotzaileak emakumezkoak dira, goi-mailan harri jasotzen dabilta eta hori horrela mantentzea ideia bikaina iruditu zitzaigun. Trontzan bikote mistoak egitea izan zen joan zen urtean ere asmoa, baina ez genuen lortu bi bikoteak mistoak izatea. Talde bat mistoa zen, baina besteetan bi trontzalariak gizonetzkoak izan ziren eta hori horrela mantendu dugu. Aizkora ere bi gizon arituko dira eta giza-proban ere gauza bera. Korrika, berriz, orekatua izango da bina mutil eta neskekin.

## “LEHIA SANOA SORTZEN SAIATUKO GARA”

### **NOAUA! Talde parekatuak al daukazue?**

**Herri kirol taldea:** Bai, printzipioz joan zen urteko eskema jarraituta orekatutako taldeak direla esango genuke. Saiatuko gara horrela izaten aurten ere eta lehia sano hori sortzen saiatuko gara.

### **Eguna eta ordua zehaztuta daude jada?**

Ekainaren 30ean arratsaldeko 19:00etan izango da Dema plazan. Ostiralean izango da aurten ere. Ostirala orokorrean nahiko egun lasaia izaten da ekitaldi gutxi-ekin, eta egun horri ere grazia pixka bat ematen saiatuko gara. Kirola egin behar-ko dugunez, asteburuan jartzeak ere ez dauka zentzurik, guk ere parranda egin nahi dugulako eta jaiez behar bezala gozatu. Gu ikusi, poteo txiki bat egin, afaldu eta parranda eder bat egiteko aukera

paregabea izango da.

### **Eguraldi txarrarekin zer egingo zenukete?**

Ez dugu hori pentsatu ere egin. Ekaitz izugarriarik ez bada euri pixka batengatik aurrera egingo dugu. Harri jasotzaileen-tzat da okerrena euria, irristatu egiten baita harria. Kasu horretan, karpa txiki bat jarriko genieke eurei eta gainontze-koek euritan ere egingo genuke. Ordubete horretan euririk ez egitea espero dugu, ordubetetxo baino ez da eta.

### **Entrenatzen hasi al zarete?**

Denok kirolariak gara. Trontzan oraindik ez dute entrenamendu teknikorik egin, baina hiru edo lau prestaketa saioekin nahikoa izango delakoan gaude. Entrenatzailea ere badugu aurten horretarako.



“Jaietako ostirala nahikoa lasaia izaten da eta egun horri grazia pixka bat ematen saiatuko gara”.

# AR-DESIGN

**AUTO-TAILERRA · AUTOEN KONPONKETA**  
**·MEKANIKA · MARKA GUZTIAK ·PRE-ITV ·GURPILAK**

**·KAMPER FURGONETA ETA AUTOKARABANETZAKO**  
**OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**  
**·ZURE FURGONETA KAMPER BIHURTZEKO**  
**AHOLKULARITZA, OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**



**633 12 44 00**



*Ondo pasa jaietan!*

# “URTE OSOAN GAZTEOK EGITEN DUGUN LANAREN AITORTZA DA”

**B**ehin ez, bitan emango diote hasiera Usurbilgo jaiei, merezimendu osoz gainera, urtean zehar herria dinamizatzen egiten duten ahalegin itzelagatik. Jai Batzordeak txupinazoa nork jaurti erabakitzeke herriari eginiko deialditik hala erabaki dute; aurtengo festak abiarazteko ohore bikoitza izango du Usurbilgo gazte mugimenduak. Mugimendu honek barnebiltzen dituen eragileetako ordezkariak ikusiko ditugu ekainaren 29an 19:00etan udaletxeko balkoian: Aztarrika Gazte Asanblada, Kafe Tertulia neska\* gazteen talde feminista, Ernai, Ziortza gazte elkarte eta Xauxar Txosna Batzordea. Haien eskutik biziko dugu ekainaren 29ko Santixabelen hasiera, lehenbizi, udaletxeko balkoitik, eta segidan, herrian barrena egin eta Mikel Laboa plazan amaituko den herri kalejira amaierako txosnen irekiera.

Jaiak hasi bezperatan, esker oneko agertu da herriko gazte mugimendua, txupinazoan “egindako lana ikusarazteko aukera izango dugulako”. Hain zuzen, argi diote, “urte osoan gazteok egiten dugun lanaren aitortza da. Gazte asko mugitzen gara herriari bizitza ematen. Herriak hori baloratzea polita da”. Txupinazoko une gogoangarri hori, aldiz, egindako lan guztia “ikusgarri egiteko modua” izango da.

## “Elkar laguntzen dugu”

Jaien hasiera unea nola biziko duten galdetu diegu. “Plazan zaudela balkoira igotzen direnak hunkituak ikusten dituzu. Politia izan behar du bertan herri osoaren aurrean jarri, hitz batzuk adierazi eta jaiei hasiera ematea”. Balkoira iritsi eta plazan bilduko diren herriki-deei zer helarazi nahi duten galdetuta, aldiz, bi mezu nabarmendu dizkigute.



*“Polita da gazte taldeen artean egin dugun harremana”*

Aurtengo festak abiarazteko ohorea izango du Usurbilgo gazte mugimenduak. Jaiak hasi bezperan, esker oneko agertu dira.

Batetik, gazteengana zuzendu nahi dira. “Animatu gazte mugimenduan parte hartzera. Ildo asko ditu: aisialdia, feminismoa, dinamika ezberdinak... Bakoitza bere grinetik animatu gugana etortzera, eskuzabalik hartuko zaituztegu”.

Mugimendura gerturatzen denak aurkituko duen errealitatea deskribatu digute. “Polita da denon artean egin dugun harremana. Elkar laguntzen dugu, gauzak elkarrekin antolatzeke oztoporik ez dugu, eta horrek azkenean herri giroan eragina du, batez ere, gazteon artean gure harremanak indartu eta harreman berriak eraikitzerakoan. Azkenean, herri batua dagoen gazteri bat ikusten da, gauzak egiteko gogo handia duena. Oso onuragarria da”. Gainera, ohiko lagun taldeetatik kanpo gazte gehiagorekin harremantzeko bidea ematen duela diote,

baita noski, auzolanean ondo pasatzeko tartea eskaini ere. “Herriari gauzak ematen bete egiten da bihotza”, adierazi digute gazteok.

## Gazteria indartsua, herri indartsua

Helarazi nahiko luketen beste mezuetako bat herriari begirakoa da. Orain arteko ildotik segiko dutela adierazi digute, “herria mobilizatzen, mugitzen. Azkenean, gazteria indartsu bat egotea, herri indartsu bat egotea da eta hala segiko dugu”.

Orain arteko bidetik, “gehiago indartu nahi ditugu geure arteko harremanak” eta elkarlanean sakontzen segi nahi dute baita herriko beste eragileekin. Ildo horretan kokatu dute kulturgi-leekin batera eraikitzen ari diren Usurbilgo Elkargunea, berriki jendaurrean aurkeztu dutena.

# HAMAIKA ZEREGINETAN MURGILDUTA

**B**este hamaika dinamiketan ere murgilduak daude gazte eragileok. Ziortza esaterako, oraintxe udako kanpaldiko prestaketa betean. Azken urteotako partaide gehientsuen bildutako urtea izango da honakoa; “94 gazte lehen txandan”. Ekainaren 24an bideratuko dute Peñaloscintosen (Errioxa) egokituko dituzten azpiegituren prestaketa lana eta uztailaren 5ean joango dira hiru txandetan lehenengoak.

Aztarrika gazte asanbladak, bestalde, ekainaren 16an amaitu zuen, frontoiko azken aldiko ostiral gauak girotu dizkigun Aztarri-Cup ekimena, sari banaketarekin. Horrez gain, “duela hilabete Elizondoko gazte asanbladarekin elkartruke bat egiten izan ginen”, berri eman digute.

## ‘Baterajotzea’ prestatzen

Euskal Herri mailako topaketa prestatzeko lan betean da, Kafe Tertulia neska\* gazteen talde feminista; urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo den Euskal Herri mailako Baterajotze ekimena hain zuzen. “Lan asko eskatzen digu horrek eta herriaren laguntza behar dugu”. Zer egitera doazen aurkezteko jendaurreko aurkezpena iragarri dute uztailaren 14an Mikel Laboa plazan.

Xauxar txosna batzordeari buruz, izenari erreparatuta soilik ezer gutxi dago esateko, oraintxe ezin lanpetuago dabiltzala jaien prestaketetan. Azkenik, Ernai. Hilabeteotan osasun mentalari buruzko dinamika abian izan dute. Lehenbizi, gairi buruzko galdetegia egin zuten. “Usurbilgo gazteriarri kezkatzen dioten gaiak



Gazteak talde ezberdinetan daude antolatuturik.

atera ziren”. Hor bildu dituzten emaitzetan oinarrituriko harreman eredu inguruko saioa ere egin zuten. “Oso saio emankorra izan zen” eta aurrera begira horri segida eman nahi diote.

**MIKEL ARRANDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

Ondo pasa Santixabelak!

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

BENTA TABERNA

Ondo pasa Santixabeletan!


**BENTA TABERNA**

Pintxoak eta giro ona!

## ROCK IZAR BAT GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA

**N**iko Etxartek 70 urte bete zituen maiatzean eta sasoi onean segitzen du. Ekainaren 30ean Hapa Hapa taldearekin batera igoko da frontoiko oholta gainera. Euskarazko rock musikaren aitzindarietako bat ikusteko aukera paregabea izango dugu.

Parisen ezagututako doinuak gurera ekarri nahi izan zituen, “eta oztupoak oztupo, 70eko hamarkadan zuzenean esku hartu zuen euskal rockaren sorreran”, badok.eus atarian irakurri daitekeen moduan. “Bakarlari gisa arrakasta handia lortu du, baita Minxoriak taldearekin ere. Hala ere, herri musika ez du inoiz baztertu, eta hainbat pastoraletarako konposatu du, eta *a cappella* abesuriko diskoak ere grabatu ditu”.



2016an Usurbilgo jaietan eskaini zuen kontzertua gogoangarria izan zen. Ekainaren 30ean berriro izango da gure artean, aspalditik bidelagun duen Hapa Hapa rock taldearekin batera. Argazkia: Xingola Usurbil.

Ondo pasa  
Santixabeletan!

**ARANKA**  
**BERRIKUNTZAK**

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL [info@arankaberrikuntzak.com](mailto:info@arankaberrikuntzak.com)



# URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)

IT-ak egiten  
dira

*Ondo pasa  
Santixabeletan!*

 **Antxeta**

TABERNA-JATETXEA



egunero irekitzen dugul

• eguneko menua (astegunetan)

• jaiegunetan: asteburuko menua

• ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, paellak  
eramateko ere prestatzen dugul

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12



- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

*ONDO PASA  
SANTIXABELETA*

Okindegia - Kafetegia



Astelehenetik larunbatera 06:00 - 21:00 / igande arratsaldetan itxita

Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95

# txirriStra

TABERNA



Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Pintxoak

Etxeko hanburgesak

*Ondo pasa Santixabeletan*

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

# ZERBITZU BEREZIA, TXUTXU TRENEAN

Osorik estimatua den jaietako ekimena; urte luzez jaietan herrian zehar eroso asko bidaiatzea ahalbidetzen diguna. Txutxu trenari buruz ari gara. Aurtengoan ere ez du hutsik egingo; Umeen Egunean (ekainak 30) goiz eta arratsaldean, Kaxkoari itzulia emango dio etenik gabe. Bordatxo taberna parean hasi eta amaituko du bidaia.

## Lehen orduan soilik adinduak zein gaztetzkoak ibili ahal izango dira

Oraingoan ordea, adi, lehen ordua herriko kolektibo helduenei eta gaztetzkoen zuzendua egongo da. Haietzat soilik eskainiko da jaietako garraio zerbitzu berezi hau. Puntapax eguneko zentroko nahiz Artzabalgo helduentzat, baita Haur Eskolakoentzat ere. 10:30-11:30 artean



Ekainaren 30ean, goizez nahiz arratsaldean ibiliko da txutxu trenak.

izango da hori.

Hurrengo bi orduetan (11:30-13:30), eta arratsalde partean ere beste pare bat orduz (15:30-17:30), edonork baliatu ahal du txutxu trenak. Herrian susta-

tzen ari diren zaintza ekosistema berria eraikitzeke prozesutik Jai Batzordera bideratu den ekimena duzue honako hau; festak guztiontzat izateko aldarriaren adierazleetakoa bat.

**Otar-Goxo**  
Elkagariak  
*Euskal Herriko*  
*Egile Handigaren 2. saria*

**HARATEGI-URDAITEGIA**

Harategiko aukera Zabala: behi txuketa, txahal entrekota, txuleta kostilla eta abar, eta ez ahaztu gure prestatuak: OSATU ZURE MENUAK! AUKERA ZABALA! Zuentzat prestatutakoak!

ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81  
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

**AIZPURUA**  
**OKINDEGIA**

**OGIAK**  
**GOZOGINTZA**  
**TARTAK**  
**ARDOAK**

*Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

**KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20**

Ondo pasa festetan!

# G Auto Guria s.l



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

**KONFIDANTZAZKO TAILERRA!**

© 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

# Elexpe

*Ukaparandegia*



*Ondo pasa  
Santixabeletan*

Betileen tintaketa  
eta permanentea

Zutikako eta  
etzandako  
Solariuma

Muna Lurra 12 • © 943 370 462

Ondo pasa  
Santixabeletan!!



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK

## ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26 943 36 11 14 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) [www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)

## UZTAILAK 2 IGANDEA DENEZ, ASTELEHENEAN JAI

Izatez, uztailaren 2an izaten da udalerri mailako jai eguna. Aurten, ordea, Santixabel eguna igandez egokituko denez, egunbete atzeratuko da festa egun hau. Alegia, hilaren 3a, astelehenean jai izango da Usurbilen.

Udalerri bakoitzak herrirako festa egun bat hautatzeko aukera izaten du beti. Iazko maiatzaren 26ko osoko bilkuran erabaki zuten 2023ko Santixabeletako azken eguna jai izatea. Hilaren 3an, beraz, udal instalakuntzak itxita egongo dira; Potxoenea, Sutegi, Kiroldegia, edota udaletxea bera baita.

2024ko Usurbilgo jai eguna noiz izango den hautatzeke du Usurbilgo Udalak.



Jubilatuena bazkaria uztailaren 3an ospatuko da Atxega jauregian.

Ondo pasa  
Santixabeletan!



**Iturraldebotika**  
*Tomas Iturralde botika*  
33/22 PEZ.

*Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua    Dermofarmazia*  
*Produktu homeopatikokoak    Maisu formulak*



edaritegia  
BORDATXO

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

*ondo pasa  
Santixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42



*%100 bertako sagarra*

**ONDO PASA  
SANTIXABELETAN!**

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**

**ATXEGA JAUREGIA  
JATETXEA**

·EGUNEKO MENUA· (astelehenerik ostiralera) ·EGUNEKO PLATERA  
·ASTEBURUKO MENUA· KARTA · RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK ·



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



**ITZIRA**  
BARRIKUOTZAK

943 530 337  
607 119 313



*Ondo pasa festetan!*

·gremioen koordinaketa ·berritze lanak  
·sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak  
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

# EGITARAU OPAROA AURTENGO JAIETAN

## Ekainak 29-uztailak 3

■ 11:00-13:00/18:00-20:00 Zirriborro taillerreko ikasleen pintura eta eskulanak ikusgai Sutegin.

## Ekainak 29, osteguna

■ 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.

■ 14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta bazkaria.

■ 16:00 Pala txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.

■ 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera Joxe Martin Sagardia plazan, gazte eragileen eskutik.

■ Ondoren, herri-kalejira, besteak beste buruhandi eta erraldoiekin.

■ 20:00 Gazte txupinazoa, txosnen irekiera.

■ 23:00-00:30 Dantzaldia frontoian: Laket. Jarraian, Bertsio Gaua txosnetan.

## Ekainak 30, ostirala

■ 9:45 Haur eta gazteei harrera, Joxe Martin Sagardia plazan.

■ 10:00-13:00 Txikienentzat puzgarriak frontoian.

■ 10:00-12:00 Gaztetzoztako erronka (LH5etik DBH2ra).

■ 10:00-12:00 Ginkana (LH1etik LH4ra).

■ 10:30-11:30 Txutxu tren: Haur Eskola, Eguneko Zentroa eta Artzabalgo helduak.

■ 11:30-13:30 Txutxu tren, Bordatxo aurretik.

■ 12:00-13:30 Buruhandi eta erraldoian emanaldia.

■ 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen.

■ 14:30 Gazte bazkaria txosnetan. Aurretik, "marianitada" eta jokoak. Ondoren, bingoa.

■ 15:00-18:00 Ur puzgarriak Kiroldegi aurrean.

■ 15:30-17:30 Txutxu tren, Bordatxo aurretik.

■ 18:00 Distopia Elektrotzaranga.

■ 18:30 Txokolate jatea Artzabalen.

■ 19:00 Herri kirolak. Herritarrez osaturiko bi talde lehiak: txinga, trontza, aizkora, korrika, giza-proba, harrijasotzea.

■ 23:00 Niko Etxart&Hapa-Hapa frontoian.



Oilasko biltzaileen eguna ekainaren 29an izango da. Goizeko 6:00etan abiatuko dira txosna gunetik.

■ Txosnetan: Pleura, La Furia, La Fulana DJ.

## Uztailak 1, larunbata

■ 11:00 Bola txapelketa Askatasuna plazako bolatokia.

■ 12:30 Herriko dantzariak frontoian.

Kuxkuxtu Txaranga.

■ 14:00 Zikiro jana, Askatasuna plazan.

■ 17:30 Sokamuturra Udarregin.

■ 18:00 Mexikortxo rantxerak txosnetan.

Ondoren, Laskotzaranga.

■ 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.

■ 23:00 Kontzertuak frontoian: Mihise eta Xiberoots.

■ Ondoren, txosnetan: Rukula, Odei Latxironga Dj-a.

## Uztailak 2, igandea

■ Egunsentian, Skapaie elektrotzaranga.

■ Ondoren, gaupaseroen argazkia.

■ 09:00 Esnadeia txistulariekin.

■ 12:00 Sokadantza, Joxe Martin Sagardia plazan.

■ Ondoren, lore eta salda banaketa.

■ 12:00 Triku taldearekin kalejira eta joaldunak.

■ 17:00 Esku pilota txapelketako finalak.

■ 18:30 Runba poteoa eta parodia txosne-

tatik.

■ 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan: Sustrai Colina, Igor Elortza, Alaia Martin eta Eli Pagola. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

■ 22:00 Kontzertuak txosnetan: Kohatu eta Lukiek.

■ Ondoren, Fresa Morango DJ-a.

## Uztailak 3, astelehena

■ 09:00 Esnadeia trikitalariekin.

■ 11:00-13:00 Toka txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa, Artzabalen.

■ 11:00-13:00 Kolore Festa.

■ 13:00 Kolore Festako opari-banaketa.

■ 14:00 Jubilatuen bazkaria, Atxegan.

■ 15:30 Musa txosnetan.

■ 15:30-18:30 Puzgarriak Olanoeneko plazan eta Joxe Martin Sagardia plazan.

■ 18:30 Emanaldia Artzabalen: Gure Pakea Dantzan.

■ 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.

■ 19:00 Puro Relajo taldea Artzabalen.

■ 19:00 Paella lehiaketa txosnetan.

■ 20:00 Disko festa eta karaokea Gaztelekuan.

■ 23:00 Maskota erretzea eta traka.

■ Ondoren, txosnetan: Amiltzen eta karaokea.



guria

guria

taberna

**ONDO PASA JAIETAN!**

PLATER KONBINATUAK,  
HANBURGESAK,  
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK,  
RAZIOAK...

**PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35**



**GRUPO MONROY**

**BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK**



**943 53 72 38**

**628 45 78 39 - 628 91 72 15**

*reformas@reformasmonroy.com*  
*reformasmonroy.com*

*Berritze zerbitzu integralen bulegoa*  
*Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean*  
*Sektorean esperientzi zabala*

**KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL**

# SANTIXA BELAKK

USURBIL

20  
13



Antolatzailea  
Santixabeletako Jai  
Batzordea